

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Toki erakunde txikiei dirulaguntzak ematea arautzen duen 2018ko deialdiaren laburpena

BDNS (identifikatzailea): 430907

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, dirulaguntza deialdiaren laburpena argitaratzen da; dena den, horren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean <http://www.pap.minhap.gob.es/bdns-trans/index> eta Legutioko Udalaren web orrian <http://www.legutio.eus> kontsultatu ahal izango da.

Deialdi honen xedea da arautzea 2018ko dirulaguntzen emakida, Arabako bolo modalitatea sustatzen duten Legutioko udalerriko toki administrazio txikietarako.

Pertsona onuradunak

Legutioko udalerriko toki erakunde txikiak izan ahalko dira dirulaguntza hauen onuradunak, erakunde laguntzaile gisa.

Dirulaguntza emateko irizpideak

a) Zer interes publiko edo sozial duen jarduera proiektuak edo programak; baita zer interes duten ezarritako helburuek ere.

b) Udalerriko herrietan eragina duten eta bertako kultura eta kirol jarduerak sustatzen dituzten proiektu edo jarduerak izatea.

c) Erakunde eskatzailearen egonkortasuna eta kaudimena, eta hark aurkeztutako programaren jarraitutasuna.

d) Erakunde sustatzailekoak ez diren pertsonak kideek parte hartuko luketen baldintza bere-tan parte hartzea proiektuaren edo programaren xede diren jardueretan.

e) Programa hau dirulaguntzaren bitartez aurrera eramatea bermatzeko aurkeztu ditzakeen baliabideak (azpiegitura, materialak eta baliabide pertsonalak) izatea.

f) Programa edo jarduerak euskararen zabalkundeari egiten dion ekarpena.

g) Kontuan hartuko da eskatutakoak erakunde eskatzailearen diru baliabideekin duen proportzionaltasuna.

Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntzek kopuru finko bat izango dute, zeina udalbatzak erabakiko baitu (gehienez ere 700,00 euro taldeko).

Dirulaguntzen zenbateko osoa 2018rako kontsignatutako aurrekontu mugen arabera izango da.

Eskaerak eta agiriak

Eskaerak aurkezteko epea 20 egunekoa da, deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Eskaerarekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia.

Ordezkarri gisa jarduten duela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia, nola eta izenpetzen duena erakundearen lehendakaria bera ez den.

Jardueraren programa.

Legutio, 2018ko azaroaren 16a

Alkatea

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA